FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

Espectáculos familiares
Familiendako ikuskizunak

# BALUARTE txiki 25/26



CIRCO Y MARIONETAS | ZIRKUA ETA TXOTXONGILOAK

# COMPAÑA

## Xampatito Pato

22/11/2025
17:00

Sala de Cámara. Auditorio Baluarte
Espectáculo sin texto | Testu gabeko ikuskizuna | 50’
+ 5 años | urtetik aurrera



Este espectáculo fusiona el circo con el mundo de las marionetas, creando imágenes y escenas que transportan al espectador a un mundo surrealista y onírico. El objetivo es ofrecer una experiencia agradable donde el público pueda disfrutar de la belleza y el humor sin preocuparse por otra cosa que no sea dejarse llevar por la emoción del momento.

Un personaje solitario en busca de compañía explora su imaginación para dar vida a cada uno de sus pensamientos. A través de este proceso, logra sentirse acompañado y lleva al público por un camino lleno de risas y sorpresas.

Ikuskizun honek zirkua eta txotxongiloak batzen ditu, ikus-entzulea mundu surrealista eta oniriko batera eramaten duten irudiak eta eszenak sortuz. Xedea da esperientzia atsegin bat sortzea, non publikoak edertasunaz eta umoreaz gozatu ahal izango duen, uneko emozioak eramaten uztea beste kezkarik eduki gabe.

Lagun bila dabilen pertsonaia bakarti batek bere irudimena esploratzen du, bere pentsamenduetako bakoitza hezurmamitzeko. Prozesu horren bidez, lagunduta sentitzea lortuko du, eta publikoa barrez eta ezustekoz betetako bide batean eramango du.

Intérprete | Antzezlea:
**Jesús Velasco Otero.**

Compañía ganadora del Premio del Público en **MalabHaría 2020** y del segundo premio **Panorama Circada 2019.**

**MalabHaría 2020**an Publikoaren Saria eskuratutako konpainia, eta **Panorama Circada 2019**an bigarren saria.



TEATRO | ANTZERKIA

# AMARES / ITSASMAITE

Producciones Maestras Teatro

13/12/2025
17:00 (cas)
18:30 (eus)

Sala de Cámara. Auditorio Baluarte
Castellano | Euskera | 50’
+ 4 años | urtetik aurrera



## ESTRENO ABSOLUTO

## ERABATEKO ESTREINALDIA

En una tormentosa noche de invierno nos encontramos a la vieja pirata Pepa “The bottle” recordando sus largas travesías por los cinco continentes. Junto a su libro de vida nos hará vivir las aventuras y desventuras de un pasado a bordo de su barco “El Ulises”.

Con Pepa recordaremos cómo llegó hasta Japón, cómo defendió a los animales en Lagos, cómo viajó sobre las olas mecidas por Yemayá, cómo bailó en Oceanía o cómo ya, de vieja y revieja, volvió a los acantilados escoceses que la vieron nacer.

Neguko ekaitz-gau batean, Pepa “The bottle” pirata zaharrarekin topo egin genuen, eta bost kontinenteetan barrena egindako ibilaldi luzeak gogoratu genituen. Bere bizitza-liburuarekin batera, “El Ulises” itsasontzian bizi izandako iragan bateko abenturak eta zorigaitzak biziaraziko dizkigu.

Peparekin gogoratuko dugu nola iritsi zen Japoniara, nola defendatu zituen animaliak Lagosen, nola bidaiatu zuen Yemayák kulunkatutako olatuen gainean, nola dantzatu zen Ozeanian eta nola itzuli zen, zahar eta oso zahar, bera jaiotzen ikusi zuten labar eskoziarretara.

Intérpretes | Antzezleak:
**Jaione Urtasun,**
**Xabier Artieda**
**Ángel García Moneo** CAS
**Iker Bengotxea** EUS.

Un canto a la **literatura de aventuras y de viajes** y, sobre todo, una declaración de **amor hacia el mar y la naturaleza.**

**ITSASMAITE** abentura- eta bidaia-literaturari **egindako kantua da, baina, batez ere,** itsasoari eta naturari egindako maitasun-aitortzea da.



MAGIA Y MÚSICA SINFÓNICA | MAGIA ETA MUSIKA SINFONIKOA

# MÚSICO MÁGICO

## Orquesta Sinfónica de Navarra y Quiquemago

10/01/2026
17:00

Sala de Cámara. Auditorio Baluarte
Castellano | 55’
+3 años | urtetik aurrera



"Músico Mágico" es un espectáculo didáctico innovador. La Orquesta Sinfónica de Navarra y Quiquemago hechizarán al público familiar y mostrarán lo unidas que están la música y la magia. Juntos enseñarán que compositores como Mozart, Tchaikovsky, Grieg, entre otros muchos, entrelazaron estas dos artes al componer algunas de sus obras más célebres. A través de encantamientos musicales, lograrán que el público participe y disfrute de este concierto inolvidable.

Los espectadores aprenderán, entre otros conceptos, qué son las dinámicas musicales y qué es un tema y variaciones. Se acercarán a la ópera "La Flauta Mágica" de Mozart, a las sinfonías de Haydn y Beethoven, y también a la música folklórica y al jazz.

"Músico Mágico" kontzertua ikuskizun didaktiko berritzailea da. Nafarroako Orkestra Sinfonikoak eta Quiquemagok familiak liluratuko dituzte, eta musika eta magia zeinen lotuta dauden erakutsiko dute. Elkarrekin erakutsiko dute hainbat musikagilek, adibidez, Mozartek, Txaikovskik eta Griegek, bi arte horiek korapilatu zituztela beren lan ospetsuenetako batzuk konposatzean.

Musika-xarmaduren bidez, publikoak parte hartzea eta kontzertu ahaztezin honetaz gozatzea lortuko dute. Ikus-entzuleek, beste kontzeptu batzuen artean, dinamika musikalak zer diren eta gai bat eta bariazioak zer diren ikasiko dute. Mozarten "Txirula magikoa" operara gerturatuko dira, Haydn eta Beethovenen sinfonietara, eta bai musika folklorikora eta jazzera ere.

Intérpretes | Interpretatzaileak:
**Enrique García Vivanco, Quiquemago.**

**Orquesta Sinfónica de Navarra | Nafarroako Orkestra Sinfonikoa**
Santiago Blanco, director | zuzendaria



TEATRO GESTUAL Y MÚSICA | KEINU BIDEZKO ANTZERKIA ETA MUSIKA

# PANTOMIMA

Cuarteto de músicos y Gorka Ganso, clown
Musikari laukotea eta Gorka Ganso, clown

07/02/2026
17:00

Sala de Cámara. Auditorio Baluarte
Espectáculo sin texto | Testu gabeko ikuskizuna | 40’
+4 años | urtetik aurrera



Cada noche se duerme acunado por el sonido del metrónomo. Cada noche sueña con orquestas que tocan música barroca. Sin embargo, nunca había soñado que despertaba, que podía interactuar con esa orquesta y, mucho menos, que lo hacía rodeado de gente.

“Pantomima” es un espectáculo que combina el teatro gestual (sin palabras) con piezas clásicas de la historia de la música. Un viaje lleno de humor que transita entre la maestría de la orquesta y la excentricidad del personaje protagonista.

Gauero, metronomoaren soinuak sehaskatuta lo hartzen du. Gauero, musika barrokoa jotzen duten orkestrekin egiten du amets. Dena dela, inoiz ez du amestu esnatzen zela, orkestra horrekin elkarri eragiten aritu zitekeenik eta, are gutxiago, jendeak inguratuta egiten zuela.

Pantomima testurik gabeko kontzertua da, musika-elementuz eta joko sinboliko eta ludikoz betea. Keinu bidezko antzerkia (hitzik gabea) musikaren historiako pieza klasikoekin konbinatzen du. Umorez betetako bidaia, orkestraren maisutzaren eta pertsonaia protagonistaren xelebrekeriaren artean ibiltzen dena.

Guion | Gidoia:
**Mikel Cañada y Gorka Ganso.**

Producción | Ekoizpena:
**Musika Gela, Euskadiko Orkestra.**

EUSKADIKO ORKESTRA

Intérpretes | Interpretatzaileak:
**Silvia Esain,** oboe | oboea.
**Alberto Saéz,** fagot | fagota.
**José Ignacio López,** violín | biolina.
**Pedro Rodríguez,** clave y piano | klabea eta pianoa.
**Gorka Ganso**, actor | aktorea.



EXPERIENCIA TEATRAL INMERSIVA | ANTZERKI-ESPERIENTZIA MURGILTZAILEA

# BAJAU

Ponten Pie

14/03/2026
17:00

Sala de Cámara. Auditorio Baluarte
Espectáculo sin texto | Testu gabeko ikuskizuna | 40'
+3 años | urtetik aurrera



¿No sería más normal que viviéramos permanentemente dentro del agua? ¿No es el hecho de experimentar sed la señal de que algo no acaba de ir bien? Se lo preguntan los dos hermanos que protagonizan esta historia, en la cual el agua tiene el máximo protagonismo. Se cuestionan cómo es que viven sobre la tierra cuando se han formado en el agua y querrían ser peces... o algo parecido. Por eso se pasan una buena parte de la función dentro del agua o muy remojados.

Efectos visuales, acciones de movimiento, las insospechadas aplicaciones escenográficas del agua y unas grandes dosis de poesía son los ingredientes de un espectáculo con una dramaturgia potente y con un carácter sensorial y visual.

Ez litzateke normalagoa izango uretan bizitzea etengabe? Egarria edukitzea ez al da, bada, zerbait ongi ez dagoen seinalea? Halako galderak egiten dizkiote beren buruari ura protagonista nagusia duen istorio honetako pertsonaiak diren bi anai-arrebek. Beren buruari galdetuko diote nola litekeen lehorrean bizitzea uretan eratu badira eta arrain izan nahi badute... edo antzeko zerbait. Hori dela-eta, emanaldiaren zati handi bat uretan edo oso bustita igaroko dute.

Efektu bisualak, mugimendu-ekintzak, uraren aplikazio eszenografiko susmagaitzak eta poesia-dosi handiak dira dramaturgia indartsua eta izaera sentsorial eta bisuala duen ikuskizun honen osagaiak.

Intérpretes | Interpretatzaileak:
**Natàlia Méndez y Borja Nieto.**

Espectáculo finalista en los **Premios Max** al Mejor diseño de **vestuario** y Mejor espectáculo para **público infantil y familiar.**

Ikuskizun finalista **jantzien diseinu** onenarentzako **Max sarietan**, eta **haur eta familientzako** ikuskizun onena.



CIRCO Y HUMOR | ZIRKUA ETA UMOREA

# EQUIPO ESTUPENDO

Capitán Spriki y Cía SEON

18/04/2026
17:00

Sala de Cámara. Auditorio Baluarte
Castellano | 55’
+4 años | urtetik aurrera



Un terremoto, una bomba, el cambio climático, y la contaminación serán algunos de los problemas a los que tendrán que enfrentarse de las formas más divertidas y surrealistas. Bailes, canciones y acrobacias serán algunos de los ingredientes de este remolino de humor, acción y diversión.

Este particular superhéroe requerirá de la colaboración de su equipo de circenses carismáticos para ayudarle. Además de, por supuesto, la ayuda y la energía del público para conseguir sus objetivos: acabar con todo el mal rollo que estos peligros generan y hacer que el mundo sea un lugar seguro, y por supuesto divertido.

Lurrikara bat, bonba bat, klima-aldaketa eta kutsadura dira modurik dibertigarri eta surrealistenetan aurre egin beharko dieten arazoetako batzuk. Dantzak, abestiak eta akrobaziak izango dira umore-, ekintza- eta dibertimendu-zurrunbilo honen osagaietako batzuk.

Superheroi berezi honek zirku-langile karismatikoen bere taldearen laguntza beharko du. Eta horrez gain, jakina, baita publikoaren laguntza eta energia ere, helburuak lortzeko: arrisku horiek sortzen duten kontu eta giro txar guztia amaitzea eta mundua toki segurua eta, nola ez, dibertigarria izatea lortzea.

Intérpretes | Antzezleak:
**Daniel Esteban, Aitor Esteban, Adrián Mascarell y Noemí Díaz.**

Innumerables peligros acechan el mundo y amenazan la **paz en el planeta.** Para combatirlos, el **Capitán Spriki** decide reunir al “Equipo Estupendo”.

Ezin konta ahala arriskuk mehatxatzen dute **mundua eta planetako bakea.** Haiek borrokatzeko, **Spriki kapitainak** “Talde Bikaina” biltzea erabakiko du.

# ENTRADAS | SARRERAK

SUELTAS | SOLTEAK

**10 €**

PACK DE 4 ENTRADAS PARA EL MISMO ESPECTÁCULO |
4 SARRERAKO SORTA IKUSKIZUN BERERAKO

**30 €**

TXIKI ABONO A LA CARTA (PARA 4 ESPECTÁCULOS A ELEGIR) |
TXIKI ABONUA NAHIERAN (AUKERATU BEHARREKO 4 IKUSKIZUNETARAKO)

**30 €**

PACK DE 4 TXIKI ABONOS A LA CARTA
(4 ENTRADAS PARA LOS MISMOS 4 ESPECTÁCULOS A ELEGIR) |
4 TXIKI ABONUKO SORTA NAHIERAN
(4 SARRERA AUKERATU BEHARREKO 4 IKUSKIZUN BERBERETARAKO)

**104 €**

## Información y venta de entradas | Informazioa eta sarreren salmenta

**Web y oficina de Fundación Baluarte**

C/Sandoval 6, bajo.
T.: 948 229 217

**Web y taquilla de Fundación Baluarte**

Plaza de la Constitución s/n.
T.: 948 066 066

**Punto de información y venta de NICDO en el Centro Comercial La Morea**

Barrio La Morea, s/n, Cordovilla

Todos los espectáculos tendrán lugar en la Sala de Cámara del Auditorio Baluarte.

Todas las personas que asistan al espectáculo, independientemente de su edad, deberán llevar entrada para poder acceder a la sala.

Se desaconseja asistir con menores de edades inferiores a las recomendadas para cada espectáculo.

Ikuskizun guztiak Baluarte Auditorioko Ganbera Aretoan eginen dira.

Ikuskizunera doazen pertsona guztiek sarrera eraman beharko dute aretora sartu ahal izateko, adina edozein dela.

Gomendatutako adinetik beherako haurrekin ez etortzea aholkatzen da.

FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

Calle Sandoval 6
31002 Pamplona-Iruña
948 229 217

www.fundacionbaluarte.com
educativoysocial@fundacionbaluarte.com

**Baluarte Txiki forma parte del Programa Educativo y Social de Fundación Baluarte**

facebook.com/FundacionBaluarteFundazioa
twitter/FundBaluarte
instagram.com/fundbaluarte
youtube.com/FundacionBaluarte
Fundación Baluarte

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · AGENDA 2030 · Fundación "la Caixa" · AUTOPISTAS DE NAVARRA

NAVARRA ⁝ NAFARROA
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua